

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko otsailaren 22a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Erronkari • Ibarreko aspaldiko inauteriak lehengoratu ditu Kezenkok bigarrenez, ohitura sortu nahian • 2

Fernando Serrano • «Erregeen gortetan agintea erakusteko tresna ziren elikagaiak» • 7



Kondoirik gabeko informazioa

Gazteei zuzenduriko sexualitate kanpaina berria abiatu du Nafarroako Gobernuak: Previene, te conviene (Prebenitu, zure onerako da). Prebentziorako informazio ugari emanen die gobernuak gazteei; ez, ordea, prebentzio materialik. Alegia, kondoirik ez. Horregatik jaso ditu kritikak. Baita sexu harremanak sarketara mugatzen dituelako, prebentzioaren planteamendu sexista egiten duelako eta azalpen tremendistak eta nahasiak ematen dituelako ere • 4-5

Zarratrako triko trako

Erronkari ibarreko inauteri berreskuratuek akabera emanen diote inaute garaiari

INAUTERIAK IA ERABAT DESAGER-tuta zeuden Erronkarin, apenas gelditzen zen arrastorik. Inauteriak mantentzen zituen bakarra Uztarroze zen. Bestee-tan ez zegoen deus. Baina beste leku anitzetan gertatu den gisara, hasiak ziren berreskuratzen. Garden iaz larogei bat lagun elkartu ziren inauteri afarian, mo-zorroturik.

Berreskuratze horretan bere-biziko garrantzia izan du Kebe-nkoren ahalegina. «Kebenko iba-rreko inauteriak berreskuratzen saiatu denez, jendea gehiago motibatu da», erran du elkarte-ko kide Ana Barrenak. «Burgin ere, aurten beste larogei bat la-gun elkartu dira. Eta Izaban aurt-en kalejira egin dute, aspaldiko partez. Jakiteak herriek mozo-rrero propioak zituztela bultzatu ditu inauteriak berriz ospatze-ra».

Herri bakoitzeko inauterien ezaugarriak ezagutaratze aldera, Kebenkokoek liburutxoak karri-karatu zuten iaz ibarreko hainbat edadetuk erran zizkieten konta-kizunekin. «Euren bizipenak eta gurasoek kontaturikoak erran zizkiguten», adierazi du Barrenak. «Hortik atera genituen libu-ruan agertzen diren kontuak, baita argitaratu gabe gelditu zi-ren beste asko ere. Urzainki, Iza-ba, Bidankoze, Erronkari, Garde, Uztarroze eta Burgi herrietako kontuak bildu genituen».

Inauteri karabana bihar
Iaz, lehenbizikoz, herriz herri jo-an zen inauteri karabana anto-latu zuten. «Iazko esperientzia

Ohitura sortu nahian, euskal kulturaren alde lan egiten duen Kebenko elkarteak bigarren bez berreskuratuta ditu duela 80 bat urteko Erronkari ibarreko inauteriak. Garizuman bete betean gauden arren, bihar zarratrakoen karabanak ibarreko herri guziaz bisitatuko ditu.



Kebenko elkarteak ibarreko aspaldiko mozorroen erakusketa paratu du bere egoitzan. ● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

oso ona izan zen», dio Barrenak. «Zenbait herrietan besteetan baina hobeki, baina tira. Inaute-ri tradizionala izan zen oso». Aurten ere inauteri karabana eginen dute. Bihar izanen da.

Bidankozen hasiko da 16:30etan, eta hiru ordu laurde-neko tartetean, Burgi, Garde, Urzainki, Izaba eta Uztarrozetik pasatuko da, Erronkari herrian bukatzeko.

Iaz Izaban egin zuten antzez-pen ttiki bera eginen dute aurt-en Erronkari herrian. Inauteri pregoia irakurri, Amanditxarko atsoari su eman eta ttun-ttuna dantzatuko dute suaren ingu-ruan. Eta akitzeko, herri afaria. «Ttun-ttuna iaz berreskuratuta genuen dantza da», azaldu du Barrenak. «Eta Amanditxarko Izabako aspaldiko pertsonaia da. Uztarrozen Aitanditxarko

izenekoa zuten. Horretaz apar-te, herri bakoitzak bere zipo-terroak ditu (izpiritu txarrak usatzen dituztenak)». Zipo-terroak, zarratrakoak edo zarra-baldoak.

Kebenkok eskuorria egin du herri bakoitzeko zipoteroen mozorroak deskribatuz. «Salto-ki eta tabernetan utzi ditugu», aipatu du Barrenak. «Horrela, herritarrek aukera dute euren

herriko zipoteroen mozorroa janzteko. Baina bestelako mo-zorroak ere onartzen dira, nos-ki». Barrena Burgikoen gisara joanen da.

Aurreko guziaz landara, Ke-benkok erakusketa paratu du Erronkari herriko bere egoi-tzan, ibarreko mozorro ezberdi-nak nolakoak ziren erakusteko.

→ Asier Azpilikueta

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Igogailuko atetik irten zen momentuan, man-tso irten ere, berehala hurbildu zitzaion solai-ruko segurtasun-arduraduna, zeinak, disimulatu gabeko destaina batez, ea zer nahi zuen galde-tu baitzion. Abokatu-bulego baten bila zebilela erantzun zion, baina ez zegoela oso seguru bulego hori solairu hartan edo besteren batean kokatuko ote zen. Orduan, abokatuaren deituraren hizki guztiak banan-banan esanarazi eta gero, ondorengo hau adierazi zion, oraingo-an pixka bat adeitsuago eta aldika moketara begira, segurtasun-arduradunak: «Zauden norabidetik segi, eta hamar metrotara edo, bira ezker aldera. Hantxe hasten den pasabidearen amaieran, hain justu, ikusiko... ba... aurkituko duzu».

Azalpen haiengatik eskerrak eman ondotik, heldu berria zen gizonak aurrera jo zuen duin eta animoso solairuan zehar. Pasabidera iristean, baina, tximistak

Goiz dirdaitsu hartan

zerua urratzean sortarazten duen danbateko moduko bat entzun zen solairu osoan. Astinaldia hain izan zen bortitza, hain neurririk gabea, erabat errotik atera baitzi-ren solairuko ate eta leihoetako kristalak. Eztanda gertatu ahala, kristal puskok, balak bailiran, zapart egin zuten han-hemenka, eta indarka jo zituzten beren hegaldi zoroan agertu pertsona eta bazter guztiak (ia seguruenerik, lehen zauritu larriak eta, agian, lehen hilak ere suertatuko ziren orduantxe). Hau guztiak gutxi balitz bezala, pasabide eta bulegoetako horma eta sabaia amiltzen hasi ziren, burrunba ikaragarria sortaraziz. Instantean, hauts lodi eta pozoitsu batek estaltzen zuen espazio osoa. Airearnastezin bihurtu zen. Gizonak,

herioa handik gertu zebilkiola sumaturik, oihu egin zuen desesperatuki.

Orduan, ahal zela, eta eskuineko eskutik iristen zitzaion teinkadaz soilik fidaturik, eramaten utzi zuen bere burua eskaileretan behera. Gero, ordu erdi ba-ten buruan edo, salbu iritsi zen kalera. Alabaina, kalea le-ku segurutzat hartu ez eta, Wolfek, artean zerbait askoz ere larriago gertatzeaz zegoelakoan, handik hurbil koka-tua zegoen metro-sarrerara zuzendu zuen arinka. Ber-tan, bi-biak lehen bagoian sartu eta galdu egin ziren New Yorkeko barrunbeetan barrena. Hurrengo egunean, irai-laren 12an, eta hamaika kazetariz inguratuta, gizonak es-ker oneko hitzak besterik ez zituen adierazi bere salba-tzailearentzat, Wolfentzat. Eta abagunea probesturik, aholku eman zien munduko itsu guztiei, ahal izanez gero, halako zakur gidari bat eduki eta edonora eraman zezate-n haiekin batera, badaezpada ere.

Lizarra •

Ijitoen aterpe txikia

Lizarrako Merced auzoan bizi diren ijitoekin lan egiten du Txiki Merced elkarteak. Bihar ospatzeaz gain, hainbat aldarrikapen egiten dituzte.

Ijitoen integrazioa xede duen Txiki Merced elkarteak 10. urteurrena ospatuko du bihar



Emakume talde bat, Txiki Merced elkarteak antokatutako dantza ikastaro batean.

• LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

LIZARRAKO MERCED AUZOAN ijitoak bizi dira nagusiki. Gutti gorabehera 500 familia bizi dira egun, Iruñeko errepidetik sartuta Lizarrako sarreran dauden etxe zahar eta txikietan. Txiki Merced elkarteak 1992. urtean sortu zen, hasiera batean auzoko ume koskorrekin eta gaztetxoekin lan egiteko xedez. «Garai hartan umeak karrikan ibiltzen ziren egun osoan», gogoratu du Marian Orue elkarte-kideak. «Gure aurreneko asmoa haien aisialdian sormena eta hezkuntza lantzen irakastea izan zen».

Hamar urtetan 47 boluntario pasatu dira elkartetik, eta denek diote oso esperientzia aberasgarria izan dela. Proiektuan erabat sinestea beharrezkotzat jotzen dute. «Eguneroko lana zaila da, gogorra batzuetan, baina guztiz aberasgarria bai pertsonalki zein profesionalki».

Egun hogeit hamar emakume eta berrogei ume eta gaztetxo biltzen ditu Txiki Mercedek aste barruko jardueretan. Horretarako, San Miguel parrokiaren areto txiki bat alokatu dute auzoan. Emakumeekin ile-apainketa, dantza eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzte egun. Aurretik

autoestimua lantzeko-eta, aerobik ikastaroak eta hainbat hitzaldi egin izan dituzte. Ume eta gaztetxoekin, aldiz, jokoak, eskulanak eta abar egiten dituzte, betiere haiek hezteko baliagarriak diren irizpideak helaraziz. «Oso gustura datoz denak, bai emakumeak bai umeak», diote elkarte-kideek.

Aldarrikapen aunitz

Auzokideen parte-hartzea eta harrera ona bada ere, elkarte-kideek ez dute hori bera erraten erakundeetatik jaso duten babesaren inguruan. «Ez dugu bo-

rondate politikorik ikusten, gure lana ez dute aintzat hartzen eta, babesa jaso beharrean, oztopoak baino ez ditugu ikusten». «Denbora gehiago ematen dugu diru laguntzak jasotzeko bete behar diren paperak eta proiektuak egiten, bertako biztanleekin baino», kexatu dira.

Haserrea nabaria da, eta aurren ez dute proiektu bakar bat ere aurkeztu. «Aldaketa garaian gaude, eta espero dugu errotik eman dugun erantzuna gauzak hobetzeko balio dezala. Gu behintzat askeago sentitzen gara orain», azpimarratu dute.

Bihar 10. urteurrena ospatuko dute. Ibilbidea polita izan da eta, tartean, Nafarroako Gobernuaren Gazte Elkarte Onenaren saria jaso dute —1999. urtean—. Bihar arratsaldean txokolatea, argazki erakusketa, ipuin kontalariak, jokoak eta dantzak izanen dituzte. Egun polita izanen da, jai girokoa, baina aldarrikapenak egiteko eguna ere izanen da. Eta bertze erantzun bat jasotzea merezi dute, aitzina egiteko eta bertze hamar urte betetzerako bidean behintzat.

→ Kristina Berasain

Bera •

'Atekaleun' erakusketa, bihar arte ikusgai

ASIER GOGORTZA ARGAZKILARIAK ETA XABIER Erkizia musikariak elkarrekin aitzinera atera duten egitasmoa da *Atekaleun*. Heldu den astean karrikaratuko dute argazkiz osatutako liburua, musika disko bat lagun duela, baina horren aitzinkari gisa, erakusketa batean bildu dituzte euren lanak. Gaur eta bihar ikusi ahal izanen dira lan horiek, Berako Kultur Etxean, 18:00etatik 20:00etara.

Asier Gogortzak Bera eta inguruetan aterako argazkiak bildu ditu liburu horretan. Zuri-beltzean eginak, esteno-peika teknika darabil bere lana egiteko. Berak egindako argazki makinak ditu oinarri (edozein kutxa,

lata edo ontzi erabiltzen du horretarako, zulo ttiki bat eginda), eta hiru gai nagusi erabili ditu lana aitzinera eramateko tenorean: bideak, zerua eta ura. Emaizta bitxia da arrunt, kutxaren forma hartzen baitute argazkiek. Xabier Erkiziak, berriz, Asierrek argazkiak ateratako inguruetan egindako grabazioak erabili ditu oinarri gisa musika sortzeko. Musika esperimentalak, argazki esperimentalen laguntzaile.

Atekaleun izena paratu diote egitasmoari; Larrun mendia magalean Berak eta Sarak bat egiten duten tokiari emandako izena da, kontrabandistek frankotan erabiltzen zuten lekua. Hau guztia Ertz Arte Gunearen

babesean egin dute. Kolektibo horrek Bera-ko hainbat talde eta lagun biltzen ditu, arte bide esperimentalak jorratzen dituztenak. Erakusketa irekitzearekin, euren webgunea aurkeztu dute, www.ertza.net, non Berako 11 artista eta talderen lanak bildu dituzten, musika, argazkigintza, pintura, bideoa eta eskultura uztartuz. Parte-hartzaileen artean, Joseba Irazoki Onddo taldeko musikaria, Josu Goia Berako Alkatea eta eskultorea, Borrokan, Gutariko Bat eta Kobak taldeak eta Xabier Erkizia eta Asier Gogortza daude.

→ Jon Abril



Xabier Larraburu

Animazioa

Astelehenean Operación Triunfo (tarteka) ikusi nuen. Ez zen lehen aldia eta Txenoa eta Bisbal hauek ezagutzen nituen jada, baina atentzioa abestietan eta batez ere pelikuletan jarri nuen, zeren zaping egiten nuen aldi oro Disney etxearen kanta bat abesten ari ziren. Azkenean, Disney etxeari buruzko saio berezi bat zela konturatu nintzen (kostata).

Kantak, esan behar al da?, izugarriñoak eta itsusiak iruditu zitzaizkidan, baina okerrean pelikulen irudiak zer txarrak ziren ikustea izan zen. Aspaldikoak kenduta (Mowgli eta horrelakoak), berriak itsusi mortalak dira! Herkulesek, esate baterako marrazki penagarriak ditu. Baina penagarriak! Eta berdin lehoi erregearekin, Aladino eta besteekin (Moises hura! oroitzen zarete!!). Aspaldiko filmak eta Toy Story kenduta (ez da Disneyrena, ta Pixar Studioren baizik), animaziozko pelikula horiek guztiak okaztagarriak dira, eta ematen dituzten eredu eta istorioak penagarriak goitik behera. Orain dela gutxi, gainera, zineman Peter Pan animaziozko pelikula zoragarriaren bigarren zatia egin dutela ikusi nuen eta, noski, lehendabizikoaren artearekin ez du inongo erlaziorik! Peter Pan ere hondatuko dute!

Orduan, esan nahi dut, Operación Triunfo ikustearena (tarteka) niretzat porrot bat bezalakoa izan zela. Hantxe argi eta garbi agertu zitzaidan Disneykoak animazioa hil eta hondatzen ari direla, gauza lingirdatsu batean utzi dutela dena.

Nire kolkorako, «itxaropena Japonian dago!» pentsatu nuen, zeren Japonian Ghilbi estudioa dago, eta hortik Mononoke Printzesa bezalako maisulanak atera dira, hortik Porco Rosso filma atera zen («nahiago dut txerri bezala segitu faxista bihurtzea baino», esaten du Porco bere giza irudira bueltatzeko faxistek laguntza eskaintzen diotenean), eta Nausicaa artelan aberatsa (ekologia-filosofia-aurrerapena jardunaldi erakargarri batzuk aurrera eramateko oinarria izan daiteke). Aste honetan bertan Berlinen Urrezko Hartza saria etxe honetako film bati eman diote. Chihiroren bidaia izenarekin estreinatuko dute hemen, eta Hisaishiren musika izango duela pentsatzen dut (eta hau bai dela musika ona!, Operación triunfokoekin inongo erlaziorik ez duena!). Ez galdu, gero! ●



Herria zurekin

Ilegalizazioa orain! Duela hamar bat urte, beraz **Gabriel Urralburu** diputazioburu ereduariaren garaian —hirugarren gradua baliatuta egunero Logroñoko espetxetik ateratzerik eduki dezan, nork kontratatuko zuen alor publikoan horren gaitasun bereziak erakutsi dituen apaiz ohia? Tokomotxo SAK?—, goi mailako kale-literato batek **PSOE ilegalización ya!** (PSOE ilegalizazioa orain!) zioen pintada, artelana egin zuen Irubide ezizenez ezaguna den Padre Moret Institutu iruindarraren parean.

Adierazpen askatasuna! Besteak beste horrelako harribitxiak direla eta, urteetan pintaden miresle eta defendatzaile sutsua izan naiz, adierazpen askatasunaren erabilpen herrikoi eta burutsuak direlakoan. Haatik, mende erdia betetzetik gero eta gertuago nagoen honetan, eskarmentuan oinarritu behatokitik, beste ikuspegi nahasiago batez dakusat afera. Nago gizaseme-alaboi ideiak ilearekin batera urdintzen zaizkigula, urteen poderioz dena txuri ala beltz ikusteari uzten diogula —orokorrean ari naiz, izan badira-eta muturreko planteamenduei eusten dieten Grecian-2000zaleak—.

Igeltseroa hormara! Euskaldunon Egunkariak bultzatu nau gaiaren inguruko hausnarketara. Astero diskete zutabeduna esku artean daukadala —neure enegarren belaunaldiko ordenagailuaren posta elektronikorekin ez naiz moldatzen behar bezala, ez beste edonola ere— bisitatzen dudana **Egun-**



● JESUS DÍGUES
Gabriel Urralburu, Nafarroako lehendakari ohia.



● JOXE LACALLE
Gizon bat, Gazteluko plazan pintada bat egiten.

kariaren Iruñeko ordezkartzaren egoitzan, Irrintzi Dorrean, bederatzigarren solairuan, obrak egiten ari dira. Hori dela kausa, igogailuetako paretak zur xafla meharrez estali dituzte, adreiluak, igeltsu zakuak eta hondakinak igo eta jaisteko tenorean ezer ez izorratze aldera —a ze profesionaltasun erakustaldia! Ziur naiz igeltseroa ez dela gurean berriki usitez sukaldea berritzen gupidagabe arituen Luisito igeltsero-harakina—. Hartara, xaflok herritarren adierazpen askatasunaren erabilpenerako euskarri izan dira azken bizpahiru asteotan.

Ez, ez, ez, pamfletorik (sic) ez! Hasieran, **Gora ET**aren bat azaldu zen; gero, horiek **Gorda TETA** eta antzekoekin estali zituzten; jarraian, **hiltzaile** eta **torturatzaille** batzuk agertu ziren;

eta, azkenik, irudimen urriko margolariak haien amen lanbide ustez lizunen inguruko eztabaida gordin bezain gatz eta piperrik gabekoan kateatu dira. Pintada grazioso samar bakarra egin zuten, betiere nahi gabe: **Egunkaria pamfletorik (sic)**.

Zuek faxistak... Arazoa da pintadak errotulagailu edo esprai bat duen edonork egiten ahal dituela. Adierazpen askatasunaren arazoa da edonork erabiltzen ahal duela. Aitatasunaren/amatatasunaren arazoa da edonork edukitzen ahal dituela seme-alabak. Demokraziaren arazoa da edonork bozkatzeko ahal duela. Adinaren arazoa da gero eta eskuindarrago bilakatzen zarela —erdarakadak gustuko dituen lagun batek esanen lukeen moduan, sartzen bada, ne-

keza bailitzateke, esaterako, **Jaime Ignacio Del Burgo** eskuindarrago bilakatzea—: neure burua izutzen ari naiz.

Herria zurekin! Aurrekoan, **Egun-kariatik** kanpo mota honetako hausnarketan murgildu nintzen. Zehatzago adierazita, Monte Carlo tabernan, mus partida amaituta, komunean maskuria arindu nuelarik, brageta igotzen ari nintzela aurrez aurre nituen pintadak irakurtzen hasi eta ezer originalik ez bainuen topatu. Halako batean, baina, euskarazko klasiko baten bertsio ezin hobekak neure pintada-zaletasuna berpiztu zuten. Atearen heldulekutik gertu zegoen, eta hizki larri biribil samarrez idatzirikoa zen: **Labiano, herria zurekin**. Nago Gerardo mus bikotekide eta ikurrina baino baskoagoren idazkera zela.



panpilonia zirkus

Enrike Diez de Ultzurrun

Maka izatearen mauka

Ez dirudi, gaur egun, **maka** hitza gehiegi erabiltzen denik. Baina, makak izan badira. Iruñeko hitza da, gure karriketan sortua, hemengo dermatik kanpo erabiltzen ez dena. Honatx zer den: gaxte-gaxtetan, hamalau-hamabost urtetan, eskola utzita denda banatzaile, mandatari ari den mutila. Hortaz, denda-mutila edo, erran geniezaioke. Iribarrenek dioenez, zabalpenez, maka ere bada edozein lanbidetako aprendiz gazte-gaztea.

«**Zer, ez duk eskolan segitu nahi? Orduan, maka sartuko haiz**». Etxe aunitzetan entzuten ziren halakoak, aitek erranik. Izan ere, duela gutxi arte, derrigorrezko eskolak hamalau urte bitartean irauten zuen. Mutiko frankok oinarritzko ikasketa horiek ere ez zituen gaintzen eta lanean hasi behar. Nolanahi ere, ha-

malau urte betetzearena muga bezalakoak izaten zen. Hiriko mutilak hiru aukera zituen adin horretara iritsita: institutuan segitu, salesianoetan ofizioa (mekanikoa, tornulari eta abar) ikasi edota maka nonbaiten sartu.

«**Maka izatea, hura huen mauka hura. Ikasgelako arau hertsitik karrika zabale-ra. Bazen aldea, alajaina!**». Josepe Olza, gaur egun, salmenta arduraduna da hiriko elikadura enpresa handi eta ezagun batean. «**Bagenian txirrindula, átso-agurreek egindako erosketa etxez etxe banatzeke. Mandatuak zitzu bizian egin eta denbora harrapatzen genian futbolinean aritzeko. Ia egunero bospasei maka goiz erdian elkartzen gintuan San Nikolas plazako joko-aretoan. Eskupekoetan irabazitako sos pizar haiek gastatu, eta,**



● XOUSE SIMAL
Erosketak etxetara eramaten zituzten makek lehen.

gero, **Gazteluko plazako belenara joaten gintuan, ligartza edo aitari kendutako zigarroak erretzera...**».

Izan ere, maka gehienek txirrindula saskidunak erabiltzen zituzten (Oraintxe-

koek izan dute aitzindaririk), baina bakan batzuek esku-gurdi txikiak zituzten (**carrico maca**, gazteleraz erraten zen bezala, **de preposizioa ahoskatu gabe**). **Gurdirik ezagunena izan zen karrika nagusiko Ardanaz drogeriako makak erabiltzen zuen huraxe, gurdiari txirrindula** erdia erantsi baitzuen, Indiako **rickshaw delakoan antzera**.

Makak, gehienbat, harategi, arrandegi, ultramarino eta urdaitegietan aritzen ziren: jende bizia zen, ernea, txirrindulari trebeak. Hiruzpalau urtez aritu ondoren, Landabengo lantegietan sartzen ziren, edo etxegintzan peoi, Ermitagaña, Iturruma eta auzo berrien eraikuntzan lan egitera. Batzuk, ordea, denda gelditzen ziren, dendañi, eta izan dira dendako jabe izatera iritsi direnak, nagusi zaharrak erretiratzerakoan. Gaur egun, bertze molde bateko makak dabil-tza, supermerkatuetako maka motordunak, alegia.

Fernando Serrano

HISTORIAN DOKTORE

«Agintea erakusteko tresna ziren elikagaiak»

Carlos III.aren garaiko gastronomiari buruzko bere tesiari esker, Historian doktore *cum laude* izendatu berri dute Fernando Serrano 32 urteko iruindarra. Frantziako gastronomiaren eragina nabarmendu du, eta elikagaiak agintearen sinbolotzat jotzen zirela agerian utzi du.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan egiten du lan Fernando Serranok, Nafarroako Artxibo Nagusiko agiriak digitalizatzen ari den taldearekin. Zeregin hori alde batera utzi eta Carlos III.aren garaiko gastronomiaz mintzatu zaigu.

■ Nondik datorkizu gai horrekiko interesa?

Karrera amaituta, Valentziara joan nintzen artxibozainen kongresu batera, eta Generalitateko argitalpen zerbitzuan Behe Erdi Aroko Valentziako elikadurari buruzko liburu bat aurkitu nuen. Irakurri eta Nafarroan ere antzeko azterketa egin zitekeela pentsatu nuen.

■ Pentsatu eta egin; harritu zaitu aurkitutakoak, edo elikadurari dago-kionez Nafarroa ez da berezia?

Gaiak mamia baduela konturatu naiz, baina harritu ez, Nafarroa, elikadura, garaiko ohituren eta moden menpe bai-

tzegoen Carlos III.a errege zenean. Gortean ari naiz, betiere, agintarien elikaduraz. Herri xeheak ahal zuena jaten zuen.

■ Oso denbora tarte zehatza aztertu duzu, gainera, 1411tik 1425era; zergatik?

Carlos III.aren erregealdia lehenago hasi zen, 1387an. 1411. urte arte bidaia asko egin zituen, Frantziara haietako hiru. Urte hartan, itzuli eta hil arte gelditu zen Nafarroan. Garai horri buruz dokumentu sorta nahiko osoa dago lan egiteko, eta erregea, gainera, 1411n itzultzen denean heldua da, eta, ondorioz, bere elikadura gustuak finkatuago daude.

■ Eta nolako gustuak zituen?

Erregearen gustuen arabera, koka izaten zen gorteko elikadura. Carlos III.arekin Nafarroako gastronomia, nagusiki, Frantziakoa da, hau da, hango gastronomiaren eragina oso nabar-

mena da, bai produktuetan, bai plateren izenetan ere. Badira, dena den, Nafarroako gastronomia bereizten duten hainbat ñabardura.

■ Zer motatako ñabardurak?


Nabari da, adibidez, musulmanen gastronomiaren eragina: azukrea asko erabiltzen zuten, eta berenjena edo pepinoa. Lotura dago Nafarroako gastronomiaren eta Kataluniakoaren edo Aragoikoaren artean ere. Carlos III.aren alaba Zuriñerekin, berriz, Italiako gastronomiaren eragina nabari da, Siziako erregina izan baitzen. Italiarrek ere jaso zuten musulmanen eragina.

■ Nolako platerak jaten zituzten Carlos III.aren gortean?

Haragia estimatzen zuten bereziki, haragi errea. Hori zen orduko elikaduraren ardatza. Eri zirenean ere, haragia ematen zieten gaixoei, sendatuko zirelakoan. Hegaztiak ere jaten zituzten, eta ehiza larria ere bai, baina horren inguruan ez dago datu askorik. Itsasoko arrainak ere estimatzen zituzten, baina kontuan hartu behar da arraina garizuman besterik ez zutela jaten. Arraina, haragia bezala, aginte sinbolotzat hartzen zen, eta, ondorioz, herritarren gehiengoak ezin zituen jan. Bisigua, itsas aingira eta izurdeak ere jaten zituzten. Izurdea, adibidez, erret produktutzat jotzen zen garai hartan. Baionatik eta Hondarribitik ekartzen zituzten arrainak. *Jaki gozo zuria* deituriko platera ere oso ezaguna zen. Oilasko-bularki eta oilasko-saldarekin egiten zen. Gozokiak ere jaten zituzten.

■ Espezieak ere asko estimatzen zituzten Erdi Aroan, ezta?

Bai, baina haien helburua ez zen, erran ohi den bezala, elika-



● LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

gaien zapore txarra desagerraraztea, gortean jaten ziren produktuak ez zirelako txarrak. Euren animalia taldeak izaten zituzten, eta jan baino pare bat egun lehenago hiltzen zituzten, gehienez. Arrainak ere ongi kontserbatzen zituzten. Espezieak zailak ziren aurkitzeko, eta, ondorioz, aginte sinbolotzat jotzen ziren.

■ Nongoak izaten ziren gorteko sukaldariak?

Aztertu beharreko gai bat da hori; abizenei dagokienez, nafarrak ziren sukaldariak, baina baziren frantziarrak ere, eta horrek, seguruenik, izan zuen eraginik gastronomian.

■ Gastronomia, beraz, gauza askoren adierazle zen.

«Frantziar pasta XIV. mendetik ezagutzen zen, baina Nafarroan Carlos III.arekin ez da ageri; alabarekin bai; luxuzkoa zen, baina, agian, ez zuen gustuko»

Bai, agintea erakusteko tresna ziren elikagaiak. Ezkontza edo antzeko ekitaldi garrantzitsuetan, adibidez, zuten guztia agertzen zuten mahaian erregeek. Platerak betikoak ziren, baina askoz kantitate gehiago ateratzen zuten, agintea erakusteko. Jaki guztiak ez ziren jateko ateratzen, erakusteko baizik. Mahaian esertzeko moduan ere islatzen da agintea, eta erregea eta haren familia besteak baino gorago esertzen ziren, U itzurako mahai bateko aurreko aldean. Hainbat bazkaritan, emakumezkoek eta gizonzkoek gela ezberdinetan jaten zuten.

■ Eta jatekoak ere ezberdinak ziren?

Ez zen ezberdintasun handirik izaten. Kontuan hartzekoak dira, hala ere, monarka bakoitzaren gustuak. Frantziar, adibidez, pasta ezaguna zen XIV. mendetik, baina Nafarroan Carlos III.arekin ez dira ageri; haren alabarekin bai. Luxuzko produktua zen pasta, baina Carlos III.ak, agian, ez zuen gustuko.

→ Edurne Elizondo

Carlos III.aren gorteko menua

Lehen zerbitzua:

- Sasoiko fruituak eta entsaladak
- Lapikokoak: zopa, gisatua... Oiloa, untzia eta bestelako produktuak erabiltzen zituzten.
- Pastelak eta enpanadak: haragiarekin, arrainarekin, fruituekin.
- Hestebeteak

Bigarren zerbitzua:

- Haragi errea: arkumea, untzia, aharia; txerria...era askotako saltsekin.
- Suiteak: 'jaki on zuria', lapikoak, tartak...

Zizka-mizkak:

- Askotarikoak ziren; uso biziarekin egindako pastelak baziren, adibidez, gonbidatuak entretenitzeko.


Hirugarren zerbitzua:

- Ehiza produktuak.
- Gisatua: gariarekin egina.

Postreak:

- Era askotako gozokiak.

Edariak: ardoa zen edari nagusia. Bazkaria bukatuta, beste gela batean ardo espeziadunak, konfiturak, azukre-almendrak eta beste jaten zituzten.



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

Sanz, muserako lagun

Muserako laguna nahi duenak Miguel Sanz presidente aukeratzea bertzerik ez du. Hogeita hamaika eskutik duenaren segurantzarekin aritzen da, ez joko, ez parerik duenean ere. Eta kartaemaileak -botoemaileak, kasu honetan- karta onak eskura ematen dizkionean, zer erranik ez.

Euskararen aldeko talde eta elkarteek, Nafarroan duten ttikitasunean, Vasuenceren Legearen murriztasuna eta estutasuna plazaratu eta lege berria eskatzen dutela (enbido ttikira), Sanzen Gobernuak bortz gehiago jotzen du, inolako beldurrik gabe, irakaskuntzan, nahiz osasungintzan, edonon, euskara alemanierarekin parekatuz, bide seinaleak espainolizatuz...

Oposizioak Iruñeko Gazteluko plazaren obrak geldiarazteko eskatzen diotenean (enbido handira), Sanzek paso itxura eman (hori legearen kontra dagoela edo prebarikazioa egitea litzatekeela erranez) eta gero hamar gehiago jotzen dizu, hori eskatzea Batasuna eta ezker abertzaleko sateliteei joko egitea dela erranez.

Leitzan ere izan dute Sanzen abildadearen berri. Duela hilabete batzuetatik honat lanean ari da Ateka Beltza Herri Ekimena, Guardia Zibilaren kuartela berriz ere herriari itzultzeko eskatuz. Ehun urte ditu Guardia Zibilak Leitzako etxe horretan eta jakinak dira azkenaldi honetan (lehen ere bai seguruenik) eltzetzuek egin dituzten gehiegikeriak (kontrol gogorrak, festetako agerraldiak...). Leitzako Herri Ekimenak enbidoa bota zuen ttikira: herriarena den etxe hori herriari bueltatzeko eskatu. Bada, oraingoan Nafarroako Gobernuak ttikia utzi eta hordagoa jo du jokora, garai batean Diputazioari eman zitzaion etxe bat, Maxurrenea, Guardia Zibilari ematea erabaki baitu. Hau da, «tol, Ateka Beltza hiretzat, baina Maxurrenea berdeentzat». Gainera, Maxurrenea Diputazioari eman zionaren eskaria etxe hori hezkuntzara dedikatzea zen. Duela urte batzuk zahar etxea egitea proposatu zuen Udalak, gero Kultur Etxea egitea pentsatu zuten, orain... Honelako hordagoari *eduki* esan nahi diote leitzarrek, nahiz eta Iruñean hogeita hamaika eskutik izanen dutela jakin.

gure aukerak

MUSIKA

- ▶ **Aitzoain:** Martires del Compas gaur Artsaian, 22:30ean.
- ▶ **Bakaiku:** MCD eta Hurto bihar, 23:00etan.
- ▶ **Iruñea:** Berri Txarrak eta Numa N° 8 bihar gaztetxean.
- ▶ **Burlata:** Electric Raiders asteartean Black Rose tabernan, 20:30ean.
- ▶ **Iruñea:** Joseba Tapiak *Agur in-txorta maite* bere azken lana aurkeztuko du ostegunean, 20:00etan, Hizkuntza Eskolan.

BERTSOLARIAK

- ▶ **Arbizu:** Gaur, 21:30ean, Aldabide elkartearen, Xabier Silveira, Josema Leitza, Ekintza Landa eta Eneko Lazkoz.
- ▶ **Lizaso:** Gaur, 21:30ean, Herriko ostatuan, Jose Juan Zubietza *Etxabe*, Oskar Estanga, Iñigo Ibarra eta Josetxo Etxenike.
- ▶ **Lesaka:** Gaur, 21:30ean, Arrano elkartearen, Estitxu Arozena, Juan Mari Lopez, Julen Zelaleta eta Nerea Bruño.

HITZALDIAK

- ▶ **Iruñea:** Pedro Esarte idazleak Nafarroako konkista izanen du hizketagai gaur, 19:30ean, Nabarrera kultur zentroan.
- ▶ **Viana:** Aro Modernoko Nafarroako erakundeez ariko da Mikel Sorrauren historialaria gaur, 20:00etan, kultur etxean.
- ▶ **Atarrabia:** SEI elkarteko kide Imanol Esnaolak *Euskaraz bizi herri erdaldun batean* izenburuko hitzaldia emango du astelehenean, 19:30ean, kultur etxean.
- ▶ **Iruñea:** Alberto Friasen eskutik, *Lurrarik gabeko Euskal Herria (garapen ereduak)* izenburuko kafe-tertulia egingen dute bihar, 17:00etan, Jarautako Aitzina tabernan.

ANTZERKIA

- ▶ **Iruñea:** Kollins Clown taldeak *Barbantxo eta Txanogorritxo* antzezlanaren taularatuko du bihar, 12:00etan, Mikael aretoan.
- ▶ **Iruñea:** Ramon Agirrek *Ondoesan beharko* antzezlanaren emango du asteazkenean, 20:30ean, Nafarroako Antzerki Eskolan.

ZINEMA

- ▶ **Iruñea:** Gaur, Karrikiriren zinemaldiaren baitan, *Chicken run* filma emango dute euskaraz, Golem-Baiona zinematokietan, 20:30ean.

KIROLA

- ▶ **Arbizu:** Denena elkartearen al-

deko herri kirol jaialdia egingen dute kiroldegian bihar, 18:00etan. Aizkolariak, trontzalariak, harri-jasotzaileak arituko dira, eta lasto altxaketa eta Iparraldeko jokoak izanen dira.

IKASTAROAK

- ▶ **Iruñea:** Larunbatetan, ekaina bitartean, EGArako prestatzeko ikastaroa ematen dute IKako Arturo Campion euskaltegian. Izena emateko, pasatu euskaltegitik (Comedias, 4) edo deitu 948-222246 telefonora.
- ▶ **Iruñea:** Gazteriaren Etxeko mintegi eta ikastaro berrietan izena emateko epea hilarekin bukatuko da: kontakizunaren praktika, natur ingurunearen azterlana, areto dantza, rueda kubatarra, dantza latinoak,

euskal dantzak, aerobik, yoga eta eskulanak.

LEHIAKETAK

- ▶ **Uitzi:** Nikolas Ormaetxea Orixe Literatur Sarirako lanak aurkezteko epea hilaren 28an akituko da. Olerki eta narrazio labur sailetan lan bana aurkeztzen ahal du egile bakoitzak. Lanek euskaraz egon behar dute eta gaialibrea da. Sail bakoitzeko saria 600 eurokoa da.

BESTAK

- ▶ **Arroiz:** Igandean tostadaren eguna ospatuko dute herrian. Alfredo Landa aktoreak zabalduko du, 10:30ean, olio dastatzea. Bazkalordua arte eskulangeak erakusketa izanen da plazan, eta herri kirolak frontoian.


Asteko erakusketa

Lina Yanguas

Zer: Lina Yanguas artistak hainbat teknikarekin eginiko lanen erakusketa.

Non: Ormolu galerian (Paulino Caballero, 42).

Noiz arte: otsailaren 28a arte.



● LINA YANGUAS